

Donostiko gaztahaundiya jarriak

I

Metro t'erdi ba ote da?
Neurtuaz goitikan behera,
una cuarenta besorik beso
nere arabera!
lepo gainen gaztanbera,
farola baten tankera
ta errespetoik bate ez duen
txulo ibilera!



MADDI SOROA

VI

Erraustegiaren sua,
hire atzerapausua!
Sutan konponduz gizakiaren
zabor arazua.
Ez hadi izan izua!
Hartu zak konpromezua!
Ez badek ketan itotzerik nahi
Zubita osua!

II

Gabardina eta guzi,
behin hala nuen ikusi.
Bulebarrean desafioka
temati, itsusi!
Baztar guztiak nahasi
ta oaindik ez dek ikasi:
bukatu arte ezin dekela
gerrik irabazi!

IV

Erraustegi ta kuartela,
hirugarrena kartzela.
Ez omen zeuden ondo Donostin,
aitzaki ustela!
Ez hadi izan ergela,
aitor beharko dek bela,
hau dena hire patrikak diruz
betetzeko dela.

VII

Hamaika burutazio,
beste hainbeste akzio.
Gaur gure lurak bihurtu dituk
hire obsesio.
Obra eta txikizio
berdin zaik zer kondizio!
Hiretzat txarra dena ez zaiok
inori desio!

III

Hiru proiektu garatu
ta hirurak aukeratu.
Herriak danak gaitzetsi arren
heurea inposatu!
Amets bat nahi dek gauzatu,
hari begira gozatu,
nahiz hortarako auzo oso bat
golpez lurperatu!

V

Jendea ez zegok alai!
berriz esango diat, bai.
Makrokartzelik eta kuartelik
ez diagula nahi!
Baina hire ustetan ai!
Kokatu ditzakek nonahi,
jar hitzak biak Mirakontxan ta
bertan bizitu ha(d)!i!

VIII

Entzun zak aurrerantzean,
erabakiak hartzean,
belar txarrikan ez diagu nahi
gure baratzean!
Proiektuez gozatzean,
oroitzapen bakoitzean,
negar malkoak alperrik dituk
Zubita hiltzean!

Usurbilgo Santixabel XXXII. Bertso Paper Lehiaketako irabazlea.

DOINUA: "Haizak hi mutil mañontzi".